



EROTIK GUTXI

Besteen historiak eta istorioak jasotzen abila, bereetaz ere badu zer kontatua Miel Anjel Elustondok 20



MILAR LARRAMENDI

MILAR LARRAMENDI

eta

Miele ren

PARTETIK

2012

OPAROA IZAN

DEZAZUELA

MILAR
LARRAMENDI
Miele
Urte berri on!



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 135.a (2012ko urtarrila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Mccuesta
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)




Uztarriki Bai Euskarari Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

2012KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia
Inkesta. Zer eskatzen diozu urte berriari? **13**

mamia
Xabier Etxeberria. Espetxean ia 9 urte pasatu ostean, preso ohiarekin solasean **04**
Klik! Hiru azpeitiarrek 580 km-ko ibilbidea egin dute Marokon, bizikletaz **16**



Uztarrria.com
berritua. Itxuraz eta edukiz aldaketa nabarmenekin, hil honen bukaeratik **24**

jakiteko
Bestaldetik. Estitxu Elduaiekin, kazetariarekin, hontaz eta hartaz **34**

Ba aL dakizu IV. zuzenien mendi Lasterketa Bertikala ez dela uztarria izango, martxoaren 4an, baizik? Uztarrria


egin zaitez bazkide Uztarrian 943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara

1.060 bazkide **30** euro dira urtean.
 gara dagoeneko Uztarrian; 117.010 euroko aurrekontua du
 eskerrik asko denei. Uztarriak 2011. urterako.



XABIER ETXEBERRIA ‘TXAPI’

preso ohia

“urtarrilaren 7an, ezin da etxean gelditu”

Ia 9 urtean preso izan da eta absolbitu ostean, urriaren 6an aske gelditu zen; urtarrilaren 7an, Bilboko manifestazio naizonalean izango da. ✍️📞 I. Agirretxe

Xabier Etxeberría Txapi urriaren 6an gelditu zen aske, Lakuntzako Universal diskotekan lehergailuak jartzeagatik zuen auzian absolbituta. 10 urte eta gero herrira itzuli zen.

2001ean egin zuen ihes, eta 2003an atxilotu zuten Bourgesen (Frantzia), Jabi Agirre herritarrarekin batera. Etakidea izatea egotzita, 6 urte eta erdi pasatu zituen Frantziako espetxeetan. Ondoren, Espainiaratu eta Espainiako kartzeletan egin ditu aske gelditu aurreko hilabeteak.

Urriaren 6an absolbitu zintuzten, eta egun berean gelditu zinen libre. Zer moduzkoa izan da itzulera?

Kartzelatik irtete horrek sentimendu kontrajarriak sortzen ditu.

Alde batetik, barruan jendea uzten duzu, eta ez zara gustura gelditzen. Baina, beste aldetik, etxera bueltatzen zara, eta aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartzen zarenaren poztasuna duzu. Kartzelatik irtendakoan oso deskolokatuta zaude.

Bi hilabete daramatzazu aske, ari al zara bizimodu berrira egokitzen?

Bai, pixkanaka ari naiz. Azkenean, prozesu bat da hau. Urte batzuk kanpoan pasatu ondoren, igual du oporretan edo lanean izan zaren... Buelta gogorra izaten da.

Zure kasuan, ordea, kartzelari, gizartetik at izan zara.

Bai, kartzelari zaudela, azkenean herrian dituzun loturak galtzen jaten zara. Baina iritsitakoan

lagun, senide eta herritarren aldetik egundoko berotasuna jasotzen, eta horrek aurrera egiten lagundu dit. Egia da, ordea, norberak egin behar izaten duela bere lurreratzea. Aske gelditzea ere prozesu bat da, eta pixkanaka noa. Denborak jarriko du dena bere lekuan, ezin da egun batetik bestera asentatu. Gustura nago, beste bizimodu bat berreraiki behar dut, eta erronka oso polita da, baina poliki egin beharrekoa.

Urte horietan kontaktua nola mantendu izan duzu, herrikideekin?

Idatziz, bisitak, telefonoz... Alde horretatik eskerrak eman beharra dut. Urte guzti horietan jendea ondoan sentitu dut, eta horrek indar asko eman dit. Horretaz

gain, herrian gure herriaren alde millitatzen eta lanean jendea sumatu izan dut. Mugimendu handia dagoela jakiteak poz ematen du. Azken urteotan Azpeitian izan den indarra kasu berezia da, beste herriekin alderatuz. Jendea lanean nola ari den ikusteak indarra ematen du.

Azken epaiketan absolbitu egin zintuzten. Espero al zenuen?

Ez. Egia da torturapean egindako deklarazioak bakarrik zituztela nire kontra, baina azken urteotan beti balekotzat eman izan dituzte. Ez dakit bizi dugun egoeratik izan den edo zergatik izan den, baina deklarazio horiek ez zituzten ontzat eman, ondorioz, aske gelditu nintzen. Esperantza txiki



Xabier Etxeberria 'Txapi' beste azpeitiar preso, ihesari eta deportatuen argazkien azpian. |||

bat banuen, baina buruak ez dizu uzten horretarako tarterik.

Ez zenuen albiste horretarako prestatzeko ere denborarik izan.

Horrenbeste urte eta gero, errespetu pixka bat ere ematen du kalera irteteak, nahiz eta satisfakzioa ere handia izan.

Urtarrilaren 7an, presoan aldeko manifestazio nazionala izango da. Kartzelan nola bizi dira ekimen horiek?

Barrutik ere sentitzen eta segitzen dira horrelako mobilizazio guztiak. Denei begirutzen diezu, ekimen txikienetik hasi eta manifestazio nazionaleraino. Beti da ona barruan daudenekin pentsatu eta haiei ere elkartasuna adieraztea.

Izan al duzu presoren bat bisitatzeko aukerarik?

Ez, ezin dut joan. Frantziara sartzea debekatua dut, eta Espainian preso izan bazara, ezin zara inor bisitatzera joan.

Bilbon izango al zara?

Bai, noski. Eta hemendik dei egiten diet denei joateko. Urtarrilaren 7an ezin da etxean gelditu, orain arteko mobilizaziorik handiena egin behar dugu. Markatu gorritz, eta euria, elurra edo eguraldi ona egin, autobusa hartu eta Bilbora joan behar da.

Aurtengoa bereziki garrantzitsua izango al da?

Beti da garrantzitsua horrelako mobilizazioa bat. Egun ematen du konponbiderako dena lotuta dagoela, baina gizartearen mobiliza-

ziorik gabe ez direla aurrerapausoak emango. Beraz, denon artean olatu bat sortu behar dugu preso, iheslari eta deportatuak ekarri behar ditugula aldarrikatzeko. Egoera berezian gaude, eta ez dago aitzakiarik mobilizaziotan parte ez hartzeko.

Konponbideari bide egiteko ezinbestekoa al da presoan gaiari irtenbidea ematea.

Presoak kartzelan mantentzea estatuen gerra estrategia da. Konponbidera iritsi behar badugu, estrategia horiek alde batera utzi behar dituzte. Alde batetik aurrerapausoak izan dira, eta beste aldetik falta dira. Gerra estrategia horretako gai bat presoen da, nahiz eta bakarra ez izan. Oraindaino hormaren kontra aritu

“barrutik ere segitzen dira presoan aldeko mobilizazioak”

“egia esanda, absoLuzioren kontu hori ez nuen ikusten”

gara, baina orain erabakitze esku-bidea aurrera eramateko mekanismoak abian jarri behar dira.

Beste kide batzuekin batera zeunden preso, nola izan ziren zure azken momentuak kartzelan?

Urduritasun handikoak. Sententzia jasotzera deitu zidaten eta tira, momentu erabakiorra da. Eraitza jakindakoan nirekin moduluan zeuden kideei jakinarazi nien leihotik eta asko poztu ziren.

Zurekin zeuden beste Euskal presoak agurtzeko beta-rik izan al zenuen?

Bai, besarkada bat emateko aukera izan nuen eta hunkigarria izan zen benetan. Sentsazio asko pilatzen dira, zu kalera zoaz eta haiek barruan gelditzen dira...

Auzi hori 2001etik dator, baina Frantzian etakide izateagatik zigorra bete ostean Espainiaratu zintuzten.

Espainiaratzeko Euroagindua onartu behar da. Nik gose greba hasi nuen kondena bukatzeaz nuela, Euroagindurik ez nuelako, eta ezin nindutelako Espainiaratu. Mugan Espainiako poliziaren esku utzi eta torturatua izateko beldurra nuen. Beraz, hori eta inkomunikazio aldia ekiditeko gose greba hasi nuen. Kondena amaitu aurreko egunean Euroagindua iritsi zen, eta poliziaren eskuetatik pasatzea saihestu nuen. Azken egunera arte izan ninduten ezjakintasun horretan mendeku gisa, ordea. Euroagindua aurretik izan banu, ez nuen gose grebarik egingo. Frantzian sei urte eta erdi egin nituen kartzelan, eta azken egunera arte egon ziren zain.

Eta epaiketa bera nola bizi izan zenuen?

Egun bateko epaiketa izan zen. Etxe horietan guk ez dugu ezer onik espero, eta ziurgabetasun horrekin egin behar duzu aurrera. Hala ere, nahiko lasai nengoen, ni neu pertsonalki, baina Espainiako Audientzia Nazionala beti da Audientzia Nazionala. Gainera, senideak eta lagunak joan ziren,

eta haiek ikusteko aukera ere izan nuen.

Nik nire artean, egia esanda, ez nuen absuluzioaren kontu hori ikusten. Egia da, bi alde zeudela, alde batetik absuluzioa eta beste aldetik zigor oso gogorrak. Ez zegoen erdibidekorik. Kaleratzearena ikusten duzu, baina buruak ez dizu uzten amesten.

Epaiketan etorkizuna zenuen jokoan; lasai baina jakinminarekin izango zinen.

Bai. Gehienbat jakinmina nuen. 2001eko kontu bat da hori, 2003tik nengoen preso, baina hori beti eraman dut bizkar gaine-

“Jendearen duintasun eta koherentziatik asko ikasi dut”

“ez dago aitzakiarik mobilizazioetan parte ez hartzeko”

an, eta jakin nahi nuen auzi horrekin zer gertatu behar zuen. Baldin badakizu onartzen hasteko aukera duzu, baina ezjakintasunak buru buelta asko sortzen ditu. Eta oso epe motzeko ikuspegia izatera mugatuta zauda.

Frantzian 2004an epaitu zintuzten eta 8 urteko espetxe zigorra ezarri zizuten.

Nola egiten zaio aurre horri? Azken finean, militantzia da. Euskal Herriaren aldeko borrokan dena ematera prestatzen zara, eta horrek burua eta bizia horretara bideratzea dakar, ondorio guztiekin. Euskal Herriaren aldeko borrokaren parte izateak berak ere indarra ematen du; borroka kolektibo bateko parte zara zu ere. Hasieratik dakizu zertan sartu zaren, eta badakizu zer daukazun. Gure herriaren historian milaka lagunek pasatutakoa da, eta zu ere ondorio guztiekin sar-



Urriaren 7an, goizaldean egin zioten lehen harrera herritarrek. |||

tzen zara. Eta horrek bizirik eta gogoarekin mantentzen zaitu.

Erraza al da hori onartzea?

Ez da erraza. Baina ez duzu beste aukerarik. Kartzelan beste kideekin zaude, eta babes bat duzu. Denon artean talde bat osatzen dugu, eta hasieratik dakizu zer daukazun. Gero, ordea, kartzela kartzela da, eta ez dago ihesbiderik. Saiatzen zara egunerokotasunean distiplina mantentzen.

Egoera gogorrak ere pasatuko zenituen.

Gogorrenak ez dira norberari pasatzen zaizkionak. Horiek gutxi edo gehiago onartuak dituzu. Ingurukoei, etxeko zein lagunei, zerbait gertatzen zaienean, eta zuk kartzelatik ezer ezin duzunean egin sentitzen den inpotentzia izan da niretzat gogorrena.

Eta zerbait erakutsi al dizu kartzelak?

Azken finean, Euskal Herriaren aldeko borrokak pena merezi duela ondorioztatu dut. Urte horietan ezagutzeko aukera izan dudana batzuk ezagutzea ere oso aberasgarria izan da. 25-30 urte kartzelan daramatzaten pertsonak erakutsi didaten militantzia maila eta

giza balioa izugarria eta eredugarria izan da. Jendearen duintasun eta koherentziatik asko ikasi dut.

Nola bizi duzu egoera berria.

Dena abiadura handian doa. Dena oso batera etorri zait, eta agian, oraindik ez naiz bizi dugun egoera osoaren jabe. Konponbide prozesu batean sartu gara, eta pausoak, momentuz, alde bakarretik ematen ari dira. Baina oraindik ez dago dena egina, hemen oraindik gauza asko daude egiteko, eta jendearen inplikazioa beharrezkoa da. Estatuen partetik borondaterik ez da izango, Euskal Herriaren aldetik indarrak eta presiorik ez badute ikusten.

Prozesuaren baitan, bizikidetzeta, berradiskidetzeta... aipatzen dira. Epe motzean posible ikusten al duzu hori?

Prozesu honetan pixkanaka pausoak emango dira, alde guztietan. Batzuentzat beti gutxiegi izango dira, beti zerbait gehiago nahiko dute. Baina pausoz pauso bideratuko da. Horrenbeste denborako gatazkaren ondoren, zuher eta poliki egingo dira pausoak, baina jakinda lehenago edo geroago egin egin beharko direla.*

Oparien ezkutuko mezua

Urteko lehen hotzekin batera urteko gaurik magikoenetarikoa datoz, haurrei lo lasai egiten uzten ez dieten gauak. "Dena prest al dago? Erregeen janaria, zaldientzako ura?". A zer tripako kilimak, a zer ilusia...

Olentzerok eta Errege Magoen bisitak urtero magia bera sortzen jarraitzen du, baina opariak aldatu egin al dira? Garai bakoitzak bere opariak ditu, bere baloreen eta izaeraren adierazgarri direnak. Gerraosteko Mariquita Pérez panpina neskentzat eta baloiak mutilentzat.

Gaur egun, gizarte kontsumista batean murgildurik, ez da krisiaren eragina gehiegi nabaritzen jendearen ohituretan. Agentzia batek eginiko ikerketaren arabera, Espainian 380€ gastatu ditu batez beste pertsona bakoitzak oparietan, gehienbat haurrei zuzendurikoetan. Opari moten artean, esku-dirua oparitzeak %40ko igoera izan du. Eta galdera da: opari motak ba al du eraginik irakatsi nahi ditugun baloreetan? Berdin dio esku-dirua oparitu edo liburu bat oparitu?

Nik, behintzat, garbi daukat erantzuna. Dirua bereizketa sozialaren ikur bilakatu den gizarte batean, berau oparitzeak gizarte honen baloreak mantentzea eta indartzea dakar. Aldiz, liburu bat oparitzeak beste esanahi eta irakaspen bat dauka. Liburuetan jasotako ezagutza eta, oro har, irakurtzeko ohitura sustatzea etorkizuneko belaunaldiei eman diezaiekegun oparirik onena da.

Gainera, liburuak ez dute funtzio pedagogikoa bakarrik, baita didaktikoa ere. Horien bitartez txikitatik bizitzaren ikuspegi koherentea eta propioa sortzen lagun diezaieke haurrei. Gainera, pertsona gisa hezterakoan indar handia izan dezake irakurtzeko ohiturak: modu autonomoan bizitzarekiko ikuspuntuak barneratzeko, baloreetan heziketa integrala bultzatzeko... Finean, Gabonetako oparien artean liburua aukeratzeak uste baino garrantzia handiagoa izan dezake.



|||||||markel mendizabal|||

|||Etorkizuneko belaunaldiei eman diezaiekegun oparirik onena da irakurtzeko ohitura sustatzea

Erakundeak bultzatzaile

Irakurtzeko ohiturak zabaltzeak gizartea gartzan laguntzen du. Horregatik, ezinbestekoa da erakundeek rol aktiboa izatea horren sustapenean. Espainian 2006-2011 urte bitartean %7,3 hazi da irakurle kopurua. Datu horrek animatu egin behar gaitu irakurtzeko ohitura bultzatzeko plangintza orokor bat diseinatzeraz.

Egon badaude ekimenak zentzu honetan (ACEX programa da horren adibide) baina Azpeitiko Udalak, ikastetxeekin koordinaturik, ziur nago asko egin dezakeela herriko belaunaldi gazteenen artean irakurtzeko eta idazteko ohiturak bultzatzeko. Irakurketa eta idazle txapelketak, irakurketa gidengaitarapena, irakurketa topaketak... ekimen posible batzuk aipatzearen. Udalak baditu azpiegiturak (udal liburategiaz nola ahaztu) eta baliabideak horrelako ekimenak bultzatzeko.

Pozgarria litzateke Gabonetako opari izaetetik liburuak gaztetxoenen eguneroko bizitzako elementu bilakatzeko. Ea ba urte hau oparoa den hau irakurle berrien uztan!!*



Atari & Insert Coin

Bazein behin, gizakiak duro eta pezetetan ordaintzen zuen garaietan Atari deituriko gauza bat. Plastikozkoa, errektangularra eta beltza kanpotik, barrutik berriz tramankulu elektroniko-magikoa, kartuxo lodi batekin funtzionatzen zuena. Japoniako aztiren batek asmatua dudarik gabe. Telebistari konektatu eta tatxan! Koloretazko formak eta pertsonak buru karratuekin, planoak, fondoak lau kolorekoak eta zeuk kontrolatutako mugimendua! Boxeoa, polizia eta lapurra, Superman, Jockey-a... a zer nolako jokuak! A zer nolako bizioa!

Umeak eta nerabeak tabernetako makinetara joaten ziren amak edo osabak emandako bost durokoak gastatzera.

Ba ote da norbait Hartzubiko futboleko jokarekin oroitzen denik? Zelai erditik gola sartu zenezakeen. Eta Garoaneko Pressin Catch-a, eta Shinobi ninja? Bazeuden asteetako esperientzia eta pagaren poderioz truko guztiak ikasiak zituztenak eta maisutasunera iristen zirenak pantaila guztiak gaintutuz. Al-boko jendeak errespetuz begiraten zieten argizko tramankuluaren ertzetatik. Eta norberaren txanda iristen zenean, txanpon handi hura hartu, piskat makurtu eta argi gorritxodun zirrikitoan barna txost egin eta "klink" baten ostean, onena ematera!

Baziren leku jakin batzuk makina hauetako asko zeudenak, Salajuegosak deitzen zitzaizkien. Azpeitian bi zeuden, behekoa, Larra, eta bestea, Goiko Salajuegosa. Adituek diotenez Xanjuandegin ere izan ziren beste bi.

Mailudun umearen jokua! Obratako pertsonaia batzuk mailukatu behar zenituen eta pantaila bakoitzaren amaieran munstroa egurtu; sator erraldoi bat, bi mafioso kotxean, eta abar.

Sarritan moskeoak ere izaten ziren azkeneko bizia despisteren batekin galdu zenuelako eta zure azkeneko txanpona zelako; zapuztuta, 5, 4, 3, 2, 1... Game Over, eta gero Insert Coin.



|||||||||||||iosu salegi||||

|||Jendea hor ibiltzen zen azkeneko bost durokoa non sartuko... Zihurrenik trebea zen joko luzeren batean

Astebukaeran, batipat igandetan, salajuegosak beteta egoten ziren eta makina bakoitzean norbait izaten zen jokatzeko, batzutan hiru edo lau ere bai inguruan. USBrik ez zen garai haietan tramankulu sofistikatuek m2 asko betetzen zituzten eta mega gutxi.

Jendea hor ibiltzen zen azkeneko bost durokoa non sartuko... zihurrenik trebea zen joko luzeren batean ongi aprobetxatzeko.

Txikleak duroa balio zuen garaian

Gezurra badirudi ere bazen bost durokoa baino tamaina handiagoko txanpon bat: hamar durokoa. Oso zaila zen txanpon hau galtzea, poltsikoan bere pisua nahiz bolumentan asko nabarmentzen zirelako eta lurrera eroriz gero hots handia ateratzen zuelako. Risetos, Bush eta Rufinos ugari kontsumitzen ziren Baela, Joxelito eta Salajuegosetan. Azukredun erregaliza gorriak, pika-pika sobreak, txokolatzeko donutsa, boomer flash-a eta futbolin partida, hogeituro azpitik seguru-eruenik.✳



Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!

urrategideko
altzariak & sukaldeak

● Sukaldeak

● Sofak

● Haurren logelak

● Armairuak

● Egongelak

● Koltxoiak

● Logelak

● Bainuak

1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA • 20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)

TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14 • urrategideko@urrategi.eu

www.mueblesurrategi.es



círculo
muebles



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Zerbitzuen berri euskara hutsean!

Bejondaiola erakuslehoian zerbitzu honen berri euskara hutsean ematea erabaki duen dendariari. Euskararen ofizialtasuna lortzeko bidean urrats ederra! **Uztarria**

**BEHERA.** Euskarari kasu zipitzik ez!

Hankamotz utzi du euskara iragarki erraldoi hau jarri duen enpresak. Gabonetarako produktu eta opariekina batera saltzeko du nonbait, euskara. **Uztarria***



Imanol Elias.

ESANA DAGO

“Kulturaren egin daitezkeen lanak ez du bukaerarik, kulturak berak ez baitu mugarik”

“Kulturak aurrera egiteko, haren lana ordaintzea da modu bat”

“Kultur mahaiaren lana oso ona da. Jende ezberdina biltzea izugarria da”

“Eskertzekoa da izendapen hau. Urteotan kulturaren egindako bidea gogora ekarri dut”

IMANOL ELIAS
kultur gizona eta
kultur mahaiaren
ohorezko bazkidea



Zuk jai eta nik ere bai

Pasatu dira eta, egiari zor, pake ederra eman dute. Urtarrileko aldapa? Abendukoarekin konparatuta urtarrila niretzako ume jolasa da. Gorriak begi-mina egiten digunontzat, alegia, jai egun eta asteburutan fitxatu behar izaten dugunontzat, lan egitea beste kontu bat baita, abendua infernuko sutan gar-gar erretzearen pareko da. Hasi eta amaitu, inolako etenik gabe, dena da gorri. Infernuko banderak ere ez du gorritik hainbeste izango.

Ehun urte irauten duen gaitzik ez dela diote eta gorri-gaitzak, gorritik gutxi duen gizon bati esker, badu sendabidea. Marianok akabo zubiak esan digu eta gu gustura. Jubilatuek ere, behar adina ez, baina gehiago jasoko dute eta haiek ere gustura. Bizardunak abenduko aldapa arindu badigu ere urte osokorako Motirola, Tourmalet, Angliru eta Urraki denak batera jarriko dizkigunaren susmoa ere badugu. Itsuek ere gorriak eta bi ikusi beharko dute.



txetxu urbieta

Dena da gorri eta dena da beltza. Etorkizuna ilun-ilun ageri zaigu. Etorkizunik ba ote dugun ere zalantzan jartzearainoko beldurra sartzen digute. Agintzen diguten dena isil-isilik, txintxo-txintxo betetzen badugu jateko adina izango omen dugu. Baina agintzen digutena betetzen ez badugu amildegian behera joango gara. Gure geroa besteen esku utzi dugu. Geure buruaren jabe izaten ez bagara orduan bai gurea egin duela. Zuk jai eta nik ere bai.*

IKUSTEKOA!

COMPRO
ORO
C/ Alfonso VI, 2
AZPEITIA

HASTA 28€ /gr.
Según cotización, cantidad y kilataje.

TASACIÓN SIN COMPROMISO
No venda sin consultarnos

SUPERAMOS CUALQUIER OFERTA!

COMPRO
PLATA
NO IMPORTA SU ESTADO
cuberterías, bandejas, candelabros, monedas...

TASACIÓN SIN COMPROMISO
No venda sin consultarnos

DINERO AL INSTANTE!

C/ Alfonso VI, 2
AZPEITIA Tel. 655 494 530

▲KALE BERRIA DISDIRATSU.

Euskara ataleko 'Behera'-rako ere aproposa litzateke herriko ia kotxe denetan banatu duten publizitate orri hau. Erdara hutsean egotea nahikoa ez, ordea, eta Azpeitik kale izendegiari 'ekarpena' egitea erabaki dute nonbait, urre eta zilar erostaile hauek. Alfonso VI.a kalearen bila dabilenak, baina, a ze bueltak eman beharko dituen! [📍📞 Mailo Oiarzabal*](#)

ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



Santomasen periye, txorixue ta ogiye

TRADIZIOA. Txiki-txikitatik halaxe entzun izan dut beti etxean: 'Santomasen periye, txorixue ta ogiye'. Baina denborak aldatzen doaz etengabe. Tradizioek ere eboluzionatu egiten dute, beren jatorria mantenduz. Donostiako Santomasetan txistor beganoa azokaratu dute aurtengoan, animalisten eta zale guztion mesedetan. Datorren urtean zergatik ez Azpeitian?



maite garmendia



Lapatx, kiratsa dariola

O ZABOR. Jasangaitza bihurtzen ari da Lapatx. Zaborra ugaritzen eta arazoa handitzen. Zer egin zaborrarekin? Nik kolore denetako ontziak erabiltzen ditut, baina '0 zabor'-era jotzearen aldekoa naiz. Zaborra gutxitu behar da, arazoa txikitzeko. Nork hartu behar ditu neurriak?



Beldurrak gaixotuta

BEREZIARTUA. Julianek esandakoak irakurtzea beti egin zait atsegina, baikortasuna darie-eta haren mezuei. Izeko Kandi ere lasaigo joaten zen osagile honengana. Izan ere, bere jakituriaren aurretik beti jartzen du gizatasuna eta beste ezer baino lehen gaixoaren beldu-

rrak uxatzeko gaitasuna izan du. Halaxe dio berak elkarrizketan: "Ezko-rrak gehiago gaixotzen dira, beti beldurrez daude". Loteriarik tokatu ez zaigunez, egiogun geure buruari opari horixe: "Baikortasun pixkat"; dixtosozko krisi honi aurre egiteko ere balioko digu-eta. Gainera, doan.*

INKESTA

zer eskatzen diozu urte berriari?

 Ainitze Agirrezabala

MIKEL ASTIZ

langilea



“Ekonomia krisia ea buelta ematen hasten den, egoera beltz

xamarra dago-eta. Osasuna ere izan dezagula, eta lan kontuengatik Alemanian bizi naizenez, alemaniera ikasi nahiko nuke behar den bezala, ongi komunikatzeko”.

MIKEL OLAIZOLA

langilea



“Lanaren egoerak buelta ematea. Une honetan lana badut, baina

enpresan oso gaizki gaude, eta ez jakin zer pasatuko den. Horrez gain, familia ondo izatea eskatzen diot 2012ari”.

SANTIAGO ARAMENDI

jubilatua



“2011 adinakoa izan dadila hasi berri dugun urtea. Momentuz

osasunez ondo nabil, egunero joaten naiz baratzara lantxo batzuk egitera eta horri eutsi nahiko nioke”.

MARIA BAKERO

ikaslea



“D.B.H.ko lehenengo mailan nago eta nota onak atera eta

lagun berri asko egin nahi ditut. Eskolaz kanpoko ekintza bezala aerobic egiten dut eta gimnasia egiten jarraitu nahi dut”.*

Sofan eserita

Ekaitz nire klasekidea da. Gainera, Hala Bedi irrati librean ibiltzen da, baita Gasteizko Gaztetxean ere, eta noizean behin bertsoan aritzea ere gustatzen zaio. Baina lagunekin batera eliza batean kateatu da hau idazten dudan egun berean, edozein unetan atxilotu eta espetxeratu izateko arriskuan baitago. Espainiako Auzitegi Gorenak zazpi urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri berri dio, urte eta erdi “kalte pertsonalik gabeko sute terrorista” eratzea egotzita (hau da, kristal batzuk apurtzeagatik), eta beste sei Segiko kidea izateagatik.

Epaiketa fartsa hutsa izan omen zen. Kontatu duenez, epaileak erdi lokartu erdi aspertu aurpegiarekin igaro zituen gazte gasteiztarraren bizitza goitik behera baldintzatuko zituen momentuak, jendea inolako frogarik gabe dozena erdi urterako espetxeratzea tabernan zurito bat ateratzea balitz bezala, laneko errutina.

Epaiketan, Segiko kide izateko frogak, Gasteizko



YURI AGIRRE

alde zaharrea kalez jantzita ibiltzen zen ertzain batek eman zituen, 2008 eta 2009 urteen artean hiru edo lau aldiz Ekaitz Segiko kartelak pegatzen ikusi zuela deklaratu. Nahikoa, sei urteko zigorra ezarri eta betearazteko.

Urteak dira “guztia terrorismoa da” lemapean inolako berme gabe eragile politiko, sozial edota komunikabideen aurka jo eta herritarrak atxilotzen, torturatzen eta espetxeraten hasi zirela. Telebistan bi dorre areazko gazteluak bezala erortzen ikusi genituenetik uste izango dute batzuek, eta memoria dugunetik horrela izan dela esango dute beste askok, aurpegia zimurrez bete izanda ere. Eta garai berriak etorri direla diote alde batetik eta bestetik, baina kontatu diezaiotela horixe bera Ekaitzi.

Beñat Gaztelumendik bertso ederrak bota zituen Gipuzkoako txapelketako finaleko kartzelakoan. “Zergatik jarraitzen ote dugu sofán eserita?” bukatzen zen lehena.*

galdetzen hasita, gabonetan kaleak musikaz ez girotu izanak krisiarekin izan du zerikusia?  Uztarria

Zorionerako sekretuak



JOXE ARREGI

2012 zoriontsua opa dizut, formula hutsaz haratago. Zoriontsu izan nahi dugu. Askotan badakigu nola izan, baina ezin dugu. Beste askotan, badakigula uste, eta oker gaude. Baina zoriontsu izatea denok nahi genuke beti. Zorion bati uko egiten diot nahi ere, zorion hobea baten ustetan egiten dio uko. Beti. Maite dugunari zoriona opa diogu, eta norbaiti zoriona opa ez diogunean, geure buruari ere ezin diogu opa. Hurkoaren zorionik gabe norberarena bilatzea oker bilatzea ez ezik, alferrik bilatzea ere bada. Beti. Elkarrekin dastatzen dugun zorionaren zaporea bai dela gozoa!

Uztazu, bada, lagun, zorionerako zenbait sekretu ezagun gogorarazten: 1) Zoriontsu izateko ez duzu behar zorion perfekturik. Ez umore perfektua, ez bikote perfektua, ez familia perfektua, ez osasun perfektua. Estima ezazu zarena eta duzuna. 2) Ez da zoriontsu dena duena, duenarekin konforme dena baik. Ez da aberats asko duena, gutxi behar duena

baizik. Ikas ezazu gutxiagorekin gehiago gozaten. 3) Zer gertatzen zaizun baino garrantzitsuagoa da gertatzen zaizuna nola hartzen duzun. 4) Barka iezaiozu zeure buruari. Barkatu zeure akatsak, ezinak. Zorionaren sekretu nagusia apaltasuna da. 5) Norbait gorroto baduzu, ezin zara zoriontsu izan. 6) Eguneroko gauza txiki guztiak poz-iturri agortezina dira: ura edatea, zerua ikustea, eurari begira egotea, txorien kantua entzutea. 7) Lagun on batek zorion txarrak murrizten ditu eta zoriona ugaltzen. Norbaitekin partekatzean, nahigabeak erdi bihurtzen dira eta pozak bikoitz. 8) Besterengandik hartzeak adina zorion du besteri emateak. Eta alderantziz. 9) Arnasaren baitan dago zoriona, bizia bezala. Zaindu arnasa. Hartu egunean bost-hamar minutu, arnasa hartzeko hondotik, isilik. 10) Larri bazaude, lanik ez baduzu, etsiak hartu bazaitu... ez dakit zer esan, lagun. Baina saia zaitetz gau beltzean argitxo bat pizten, edo argitxo bat izango dela sinesten.*



hi, ta
hauek zer debe?



Gure konture bizi dituk eta,
oain krisisekin baikik,
monarkirakore plaza gutxiyo.

Erregalooa

Oso kostatzen zaizu besteri erregaloak egitea. Ez duzu jakiten zer egin, eta batzuetan sufritu egiten duzu, egin egin behar, eta zer erregalo egin asmatu ezinda. Batzuetan erraza izaten da: Lasturren lehenengo aldiz loteria erosi zenuenean bezala. Hamarrenari buelta eman zenionean garbi ikusi zenuen zure lagun Oierrekin konpartitzeko zela hura, eta harrezkero urtero oparitzen diozu Lasturren erositako hamarren erdia. Aurten bateko bost tokatu zaizue. J.ri ere inoiz ez diozu oparirik egin, baina oraindik orain bufanda hori batekin abentura izan zuen Donostian, eta

berari ere iritsiko zaio bufanda horia, Stradivarius-en ez badira agortzen behintzat.

Zurekin asmatzea, berriz, erraz-erraza da. Liburu bat nahikoa izaten da asmatzeko. Beno, Artzakenean afora erregalatzen duenak ere asmatzen du. Eta aurtun, Gorlizko Olentzerok bete-betea asmatu du: liburu bat erregalatu dizu!

Bai, liburu bat erregalatu dizu, baina ez nolana horkoa. Azken bi ikasturtetako argazkiak dira. Han agertzen zarete Gabi, Mikel, Naroa eta zu, lanean, jolasean, lotan, irribarrez, bersarkatuta, baina jende gehiago ere agertzen



ñaut frantzesena

da: beste barnetegietakoak, Victor, Julia, zuekin egon diren talde guztietako kideak, baita Txarlazo, Tologorri, Plentzia, Aubixa, Alkiza, Segura, Barria, Ea, Eguzkibegi, Lemoiz, Mallorka eta beste hainbat leku ere.

Atzera begira jarrita, izan dira une txarrak (Gabiren semea Audientzia Nazionalak atxilotu zueneko txarrena), baina onak askoz gehiago izan direla uste duzu. Mikel Markez atera zuen diskoa, *Oroitzapenak oparitzen ditut*. Zuri ere, liburua baino, oroitzapenak oparitu dizkizute. Eta eskerrak eman nahi dituzu: opariagatik, bizitakoagatik.✱

IRITZIA

Eguberrietako oroimenak

Idaztera noana isilean egun hauetan herriaren alde lan egin dutenei zuzenduta doa.

Umetatik dut oroimenean, egun handia heldu aurretik, gure etxean egoten zen egoera. Bi hilabete lehenagotik gai berdina izaten zen: herriko parrokiari, gaur egun ere, jartzen den jaiotza.

Familia arteko eginkizuna izan da urteetan. Gurean aita hasi zen lanean bertan, eta egun seme-alaba eta bilobek jarraitzen dute.

Gurean, gabon gaua eta egu-

berri eguna jaiotzaren gorabehera lotua egon dira beti. Amak urtero gabon gaua haserretuta amaitzen zuen; lehenengo aitarekin eta gero bere semeekin. Afalduan, oraindik, jaiotza amaitu gabe aurkitzen zelako, eta gauerdian irekitzen zutelako bisitarien zat. Amak beti esaten zuen, "aurten ere Azeptiko familia guztiak afalduta egongo dira, eta gure etxean oraindik hasteko gaude".

Egun, egoerak antzeko jarraitzen du; baina azken urteotan ez

da horrenbeste presa izaten. Gabon gauean ez dute parrokiarekin irekitzen, ez da mezarik egoten. Baina hurrengo egunerako bai, jaiotzak prest behar du. Hainbat familiak jarraitzen dute eguberri egunean herriko jaiotza ikustera joaten, familia askoren tradizio bilakatu da. Baita gurean ere.

Hasieran aipatu dudana, hitz hauek beraiei zuzendu nahi dizkiet. Baina ez beraiei bakarrik. Inguruan laguntzen duten guztiei ere eskerrak eman nahi

dizkiet, gaur egun bizi garen garaian horrelako ekintzak aurrera ematen laguntzen dutelako.

Nahiz eta jende askok balorerik eman ez, urtero hiru hilabetez egunero herriko parrokiara joaten dira, ondoren guztiok jaiotze eder honekin gozatzeko.

Eskerrik asko eta beste urte askoan horrela jarraitu. Zuetaz harro dagoen ahizpa baten partez.✱

mila perez

(azpeitiarra)



iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50 • f. 943 81 50 52
www.grupohorzkari.com

Servicios
con calidad

AENOR



Servicio
Certificado

Atención sanitaria

Osasun Arreta Ziurtagiria duen Euskal Herriko
lehenengo hartz klinika

**▲ ALIFAN DOR**

2.300 metro inguru dituen Alifan Dor, igotzerakoan ez zuten azpeitiarrek, baina aldatu zitzaizkien komeriak: "1970ko hamarkadan, penintsula aldapan beheko aldean, Eguren haletan ikusi geratu zen polietilentakoa izan zen lehen aldiz. Ahaztezina da".

Maroko, bizikletaz

Oier Zenitagoiak, Joseba Albizuk eta Iosu Lazkanok 580 km-ko ibilbidea egin dute. Haien bizipenekin argazki bilduma egin du Uztarriak. 📌 E. Albizu 📍 O. Zenitagoia

► BREAK.

uen mendi hau
arazorik izan
apa jaisterakoan hasi
noiz ez genuen
era aspertuko ginenik.
nuen paisaiarik
. Bizitako esperientzia



▲ ZERUA BELTZ.

Bidaiarena udan sortutako ideia izan zen. "Ezagun batek aholkatu zigun ibilbidea, eta urriaren 20an atera eta 31 arte ibili ginen. Hiru lagun joan ginen hegazkinez Marrakechera; han furgoneta alokatu eta zazpi orduko bidea egin genuen Al-Kashira iristeko. Bizikletak hartu eta ibilbideari ekin genion". Bidaiako lehen argazkian, Albizu eta Zenitagoia.

► AZOKA.

"Mobileta zaharrak bai arrautzek!", diote gazteek. Marrakecheko azokan atera zuten argazkia. "Arraroa dirudien arren, han normala da honelako garraioak erabiltzea. Zeukatenarekin moldatu behar!". Batek baino gehiagok esango luke: "arrautza horiek seguru ote doaz?".





▲ UMEZ INGURATUTA.

Zihoazen lekura zihoazela, alde guztietan umeak zeudela adierazi dute. "Janaria eta eskolarako materiala eskatzen zizkiguten umeek. Pozik egoten ginen haiekin, baina noizko alde egin...".

► HORTZAK SALTZEN.

Inork bigarren eskuko hortzak behar baditu animatu eta bisitatu Marrakecheko azoka. "Ohikoa zen azokan hortzak saltzea, prezio paregabeen. Hori bai, salgai zeuden hortz haiek ikusteak atzerakoa ematen zuten.



▲ OPARIAK.

"Entzuna genuen arkatzak, txokolatea... eskatzen zietela umeek turistei, eta hemendik ahal genuen guztia eraman genuen. Ahal genuenean, beti oparitzen genien zerbait".



▲ ETXEAN BEZALA.

Egondako leku askotan ez zegoen tabernarik, ez dendarik... eta gau asko bertakoen etxeetan pasatu zituzten. Oier Zenitagoia Zaid eta haren alabarekin. "Familia honek etxean hartu gintuen eta tratu paregabea jaso genuen".





▲ **EMAKUME BERE BERRAK.**

Todrako bere berrak. Munduan gelditzen diren nomada gutxietakoak dira. Argazkiak ateratzeko eskaintzen zuten euren burua, diru truke.



▲ **LUR GORRIA, DESERTUAN.**

Sagroan barrena desertu alderantz. Egun hartan bakoitzak hiru litro ur edan zituen: "Fosilez josita zeuden inguruak, han ez da zaila bat aurkitzea".

MIEL ANJEL ELUSTONDO

irakaslea, idazlea, editorea, argazkilaria, itzultzailea...

“Agintarien Lehentasuna ez da jendearen bizimodua erraztea”

Argitaratu berri dituen lanak, AEBetako diasporarekin duen harremana, Azpeitia-Gasteiz binomioa eta gehiago, Zaldi Eroren elkarrizketan. 📍 Mccuesta 📎 A. Agirrezabala

Ameriketako

Estatu Batuetako euskaldun populua ondoen ezagutzen duenetakoa da Miel Anjel Elustondo. Atzerriak erakutsi dionaz eta bere historio eta istorioez sakon mintzatu da.

Mr Basque eta Landakanda, panderoaren erregea biografia lanak argitaratu berri dituzu. Gainerakoan, beti hor, Argia-n, Berria-n eta hango eta hemengo elkarrizketak, Western Basque Festival hura, itzulpenak... Idazten, beti?

Bai, eta? Iturginak makina bat lan egiten du, beharrezkoak. Udaltzainak oinezkooi paso ematen digu, ematen zigun garai batean Artzubian, kaminoa ezin pasaturik ibiltzen ginenean... Zure galdera: kolaborazioak, liburuak... Ikasi eta ikasi egin genuen, leitzen ere ez ginen makalak, apropos gaixotu ere bai inoiz, hau eta hura leitzeko. Azkenean, ganbara bete-bete eginda, non edo nondik hustu beharra etorri zitzaidan, eta halaxe hasi nintzen, Aitor *Enbortxorekin* eta Joxerramon Larrañagarekin zer edo zer eskribitzen eta egun-

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1958. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Bizi tokia.** Gasteiz.

||| **Lanbidea.** Irakaslea, editorea, argazkilaria, itzultzailea eta idazlea.

karira bidaltzen. Hasi ginen, geratu ginen, hasi ginen bigarren aldiz, edo hirugarrenez, eta orain arte, ezin geratu! Gaixoak bezala, ezin gelditu! Gustatu ere bai, jakina.

Argazkilaritza ere lantzen duzu, horra 'Zaldi Ero idazleekin' argazki-bilduma *armiarma.com-en*...

Nik ez dut argazkilaritza lantzen,

ez nahiko nukeen beste, behintzat. Hobe nuke gehiago landuko banu! Nik erretratuak egiten ditut, errealistak, argia, iluna eta itzala, enkuadrea eta plano itxiekin jokatuz. Garai batean, telebistan literatura-saioan lanean, elkarrizketatzen genuen jendeari erretratuak egiten hasi nintzen, helbururik gabe. Laster, erretratuak finitzen hasi nintzen, era jakin batean egiten, bestelakoan ez egiten... Azkenerako, nabarmena zen bazutela intentzioa. Halako batean, mordoxka osatuta neukala, Susa argitaletxeokoe ere jakin zuten,



eta kasu egin zidaten, beraien webean jarri nahi ote nituen. Nik, baietz. Eta horrela. Hor dira, idazleen argazkiak, jendearen eskura. AEBetako euskaldunen erretratuak ere pila, mila ditut, noiz Interneten jarriko zain...

Zaldi Ero goitizena nolatan hartu duzu?

Horrela firmatzen ditut erretratuak... Anaia zaharrenak esan zuen behin. Biok Gasteizen, Azpeitira joatekoak ginen zapatu goiz batez. Batera joango ote ginen, amarenean bazkalduko ote genuen... Nik, aurretik, ostiral arratsaldean, Donostiatik joan-etorria egin beharra neukala. Zapatu goizean Azpeitian baietz, baina eguerdian Gasteizen behar nuela berriz, eta arratsaldean ere banuela zer edo zer beste non edo non. Anaiak, orduan: "Hi haiz hi, *Crazy Horse!*". Eta, harrezkerro, halaxe sinatzen hasi nintzen erretratuak, eta izen horrekin dau-

kat emailu helbidea ere. Zenbaitak, berriz, benetako *Crazy Horse*-ren historiaren berri bidali izan dit. Hura bai gizona, indio hura!

Crazy Horse... Zer harreman duzu Amerikarekin?

Amerikarekin? Zein Amerikarekin? Habanan badugu lagun bat, AEBetan izan dena. Nola izan zen kontaktzen hasiko bagina, ez genuke bukatuko. Nobela handi bat eskribitzeko lain ematen du haren ibilerak, mertzenario bidean ibili zen-eta. *Amerika* esaten diote, Jorge izena duen arren. *Amerika* hori bai, lagun modukoa dut, badut harremana. Gainerakoan, Amerikarekin, kontinentarekin... 1992an joan nintzen estreinakoz Renora, Nevadan, eta harrezkerro ez diot utzi hara joateari. Joan, euskaldunak bilatu, elkarrizketak egin, erretratuak... hau eta hura leitu, eta bueltan, hemen, poliki-poliki argitaratu, *Argia*-n edo *Be-*

rria-n, eta baten bat Uztarrian. Behin, Erniora bidean, azpeitiar batzuek niri: "Hi, amerikano!", eta Amerika osoa ezagutzen nuela eta abarra. Gezur galanta, nik, ezagutzekotan, aireportuak ezagutzen ditut, makina bat ibili ditut eta. Baina besterik ez.

Zer eman dizu atzerriak?

Mundua mundu dela erakutsi dit, eta jendea beti jende dela. Eta mundu hau konponduko duenik

“Atzerriak erakutsi dit mundu hau konponduko duenik ez dagoela”

“Jaioterriarekin Lotura izateko modu bat dut Uztarrian idaztea”

ez dagoela. Etxe bat hemen, kaminu bat han... jendearen bizimodu erraztea ez dela agintarien lehenetasuna. Boterean eta boterearen hari artean korapilatuta geratzen direla, eta azkenean munduak funtzionatzearekin konformatzen direla, eta harrotzen direla! Zenbat denbora egin dute, bada, Belgikan gobernu gabe? Eta herria ez da desegin, ez da alferrik galdu, ez du hondoa jo... Dena zeharo organizatuta dagoela dauka itxura mundu honek, baina, benetan, kaosa da. Gauza bat esan eta bestea egin da —eta eginarazten—, aparkalekurik jarri ez eta autozaleei isunak jartzen zaizkigu ahal dugun lekuan aparkatzeagatik, edo aparkalekuak jartzen dituzte baina halako eran, han inork ez aparkatu nahi izateko moduan —Soreasun, alegia—, naturari erasoka jarduten dugu behin eta berri, baserriak kondentzen ditu—▶

►gu saihesbideen aitzakian, edo suhiltzaileen parkea egiteko –horrela joan zen Pastelko hura–, eta makina bat desgrazia. Kaosa. Arduradunak ere badira. Imanol Murua zarauztarrak esan zuena: politikaria problemak konpontzeko dago, ez berriak sortzeko. Uste dut bigarrenetik gehiago egiten dutela askok.

Uztarrria aldizkari honetan kolaboratzaile ere bazara...

Bai. Ustez, aldizkariari zer edo zertan laguntzen diogulakoan. Kanpoko kontuak, bertako batek kontatuak. Jaio nintzen herriarekin lotura izateko modu bat dut Uztarrrian eskribitzea. Bertan baintz, bestelako gaiak eskribituko nituzke. Edo ez, ez dakit. Beharbada, orduan ere herrian kabitzen ez diren istorio eta historiak ibiliko nituzke esku artean, bateko Nevadako Ignazio Olarreaga *Gerri*, besteko Habanako postalak... Dena dela, askotan ez zait erraza asmatzea. "Interesgarri irudituko ote zaio eskribitu dudana herriko jendeari?". Ez dago jakiterik, baina eskribitzen duenak zer egiten du, bada, finean? Leitu nahiko lituzkeenak eskribitu. Baina nik leitu nahi dudana ez da zertan izan behar nik eskribitutakoa hartuko duenak leitu nahi duena.

Zer diozu Uztarriaz?

Oso gogo onez jasotzen dut etxean. Herriko berri jasotzen dut horrela. Horixe dut bide bakarreneetakoa, Iñaki koinatuaren eta Ibai ilobarekin batera. Era askotako gaiak lantzen dira aldizkarian. Alde horretatik ez dago aitzakiarik. Gasteizen ere parte hartu nuen halako aldizkari batean, Gasteizko euskaldunen elkartearena, baina laster konturatu ginen aldizkariak hartu zuela protagonismoa, jendearen dedikazioa, denbora eta dirua, eta hustu egin zen elkarte! Orain dela bi urte, 2009an, aldizkaria ateratzeari utzi zioten. Bada, oraintxe ari da elkarte gogorren. Ez nuke nahi horrelakorik gertatzea Azpeitian. Begira, jendeak euskaraz leitzeko garai batean egin genuen zorake-

ria: Iraurgi saskibaloit taldea hirugarren mailara igo eta partidak Izarraitz pilotalekuan jokatzen hasi zen. Jende asko biltzen zen partidak ikustera. Giro handia zegoen. Etxeko partidak bertan ikusten genituen, baina kanpokoik ez. Taldeko Pello Aizpurrekin hitz egiten genuen kanpoko partiden kronika egiteko. Hark epaileen akta jasotzen zuen eta partiden inguruko balorazioa ere egiten zuen. Eskribitzen genuen, ma-

kinaz jotzen genuen, udaletxean lauhun kopia ateratzen genituen, eta etxeko partiden atarian banatzen genituen. Horrelako hamaika egin liteke, berehalakoa da, orrialde eskas bat, eta interesa du, interesa duenarentzat. Gauza guztietan bezala. Pentsa zenbat holako egin litezkeen. Aldizkaria baino askoz dinamikagoa da panfleto modu hori. Dena dela, Sanagustin ere martxan da, indarrean dator, eta hori zoraga-

ria da. Aldizkariak ez du gainerako guztia itoko. Azpeitian ez, behintzat.

Garai hartako Azpeitia. Hamar urte egin zenituen ikastolan. 1990 arte izan zinen irakasle Karmelo Etxegarain. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Oroimenak gezur handiak esaten ditu. Edo Juan Carlos Perezek ltoizen kantuan: "Oroimena ez da erretratu bat besterik, iraganik ez urre biltzailearentzat...". Hori, has-teko. Bada ikerketa bat, non edo non psikologoek egindakoa. Haren arabera, zenbait jenderi agindu diote egunerokoa eskribitzeko eta, handik urtebetera, berriz agindu diote aurreko urteaz zer gogoratzen duten berriz eskribitzeko. Ikerketaren arabera, jende horrek eskribitutako bi testuak diferenteak dira, batzuetan oso diferenteak, besteetan nahiko diferenteak, baina diferenteak beti. Hortaz, hori esanda, zer gogoratu behar dut nik orain dela hamar urteko hartaz? Eguneroko bizimodu hura daukat gogoan, familia, koadrila, irakasle eta andereño lagunak, ikasle mordoa... eta atzera irakasle izango banintz egingo ez nukeen gauza pila; besteak beste, premia handiena duten ikasleak hobeto entenditu, hobeto atenditu. Gainerakoan, ikasleek beren bidea egiten lagundu, haien irakasle eta lagun izan, haiekin jolas egin... Hamar urte han egin nuen, eta beste historia bat da nirea, eta beste historia bat ikastola harena.



“Hobe zenukete eskribitzerakoan, herrian bertako formak erabili”

“Herri guztiek egin dutena egin du Azpeitiak: zemez-tuz jantzi”

Hogei urte Azpeititik aparte. Bertako hizkerari eusten al diozu?

Ez dut horri lagatzeko batere asmorik, eta, eskribitzerakoan, zuek ere hobe zenukete herrian bertako formak erabili, eta ez liburuetan ikasitakoak: "etortzeaz dago"-eta, "jateaz aspertuta dago"-eta, hori da zorakeria! Gasteiza etorri nintzenez forma batuak erabili behar izan nituen baina, poliki-poliki, lagunak egin, erlaxatu, eta, gaur egun, Azpeitikoak erabiltzen dut lagunartean. Jakina, nora edo nora joan, jendaurrean hitz egin

behar, eta orduan ez dago bro-marik, orduan estandarera jo behar dugu. Etxean ere, Azpeitikoari segitzen diot... Pixka bat kanbiatuta, igual, baina horkoa. Donostian jaio nintzen, ospitalean, baina Azpeitian jaioa naizela esaten dut, eta eskribitzen dut, lagatzen didatenetan. Ez Donostia, ez Gasteiz, azpeitiarra naiz. Elias Querejetak esan dit oraindik orain, Saint-Exuperyrenetik ari zela. "Herria haurtzaroa da. Nire haurtzaroa Hernani da. Beraz, nire herria Hernani da". Bada, horixe: azpeitiarra naiz.*



1. 2. 3. AE Betan ateratako argazkiak. 4. 'Zaldi Ero idazleekin' argazki-bilduma, www.armiarma.com-en.



Azpeitia

||| "Hogei urte kanpoan eman eta gero, orduko Azpeitia ez da oraingoa. Neu ere ez naiz ordukoa. Aldatu da herria, aldatu naiz ni, aldatu gara denok. Kanbiatuta dago, hazita. Tamaina horretako herri guztiek egin dutena egin du Azpeitiak: zementuz jantzi. Porlana behar dugu, baina berdamera zaintzea ere ez legoke gaizki. Hirian bezala egin da gure herrian: autoari eman diozue lehentasuna, zementuz jantzi da lurra, ez dago zibilizazio arrastorik... Etxeak egin eta egin, kamino, bide eta estratak, biribilguneak... Noiz egin da bizikletaren aldeko kanpaina bat Azpeitian, adibidez? Edo autoan poliki ibiltzekoa,

jendea errespetatzekoa, buila zaintzekoa... Horretan oso espainolak gara azpeitiarrak, eta euskaldunak. Nevada ez da horrelakorik, ez abiaduran, ez zaratan, ez beste gauza askotan. Han ere zakurrak hanka-hutsik, jakina, han ere herren handia jendeak. Nire ustez, Euskal Herrian EAJren dotrina izan da azpiegiturak jartzea gauza guztien gainetik. Eta horrela gabiltza oraindik. Euskara jarri izan balu lehenengo, nahiko azpiegitura ere izango genukeela ez dut dudarik —ez gara tonto ergelak, hainbeste opa diogu geure buruari—, eta Euskal Herria euskaldunagoa izango litzateke, premia ere badugu-eta".*

Gasteiz

||| "Zementuz, autoz eta jendez egindako deserria zait Gasteiz. Guk, Gasteiz, espainolek ez dute Vitoria-Gasteiz erabiltzen, Vitoria besterik ez. Badut hemen lagun bat azpeitiarra, eta askotan gabiltza elkarrekin. Iñaki Lasa —Galdos—. Galdetzen diotenean, gasteiztarra dela erantzun ohi

du, azpeitiarra ere bada, jakina. Nik, berriz, ezetz, ukatu egiten dut gasteiztarra naizela esaten, edo galdetzen, hasten zaizkidanean. Ni ez naiz gasteiztarra, ez naiz bertakoa sentitzen, familiaren aldetik ez baldin bada, behintzat, hemengoak ditut-eta andrea eta alaba. Eta horrek asko balio du".*

Sare berria ehuntzen

Sortu zueneko 10. urteurrenarekin bat eginez, webgunea berritu du Uztarría Komunikazio Taldeak. Uztarría.com 'berria', urtarrilaren amaieratik. 📌 Uztarría

Arustu eta erronka berrie-kin ekingo dio urteari Uztarría Komunikazio Taldeak. Izan ere, 2012arekin Uztarría.com berritua martxan izango da. Urtarrila amaitzerako, edukiz eta itxuraz eraberritutako webgunea erabilgarri izango dute bisitari guztiek.

Hilabete askotako lanaren ondoren, sortu zeneko 10. urteurrenarekin bat eginez estrenatuko dugu webgune berritua; 2005eko urtarrilaren 1ean jaio zen Uztarría.com. Beraz, Uztarría-arentzat bi une eta gertaera garrantzitsuak bat egingo dute urte hasiera honetan. CodeSyntax enpresari eman dio Uztarría Komunikazio Taldeak webgunea berritzearen enkargua eta Josu Azpillaga azpeitiarrak,

bere garaian Uztarría.com diseinatu zuen berak, izan du orain ere lanaren ardura nagusia. Uztarría.com berritua ekarriko dituen nobedadeen artean herritarren parte-hartzea sustatzera bideratuta eratu nahi den Komunitatea dago. Horri eta webgunearen gainerako edukiei buruzkoak, jarraian.

ITXURA.

Irakurterraza eta garbia. Komunikabide baten webgunea izanik, albisteak irakurri eta gainerako eduki guztiak jasotzeko diseinu erosoak, traba gutxikoa, izango du.

Berdeari eutsita. Kolorea aukeratzekoan, orain arteko itxurari nolabaiteko jarraituta-

sun eman zaio, eta kolore identifikatzaile-edo berdea izango da webgune berrituan erea

EDUKIAREN ANTOLAKETA BERRIA.

Lau multzo handi. Hemendik aurrera, Uztarría.com-en eduki guztiak lau multzo nagusitan banatuta egongo dira:

- |||Aktualitatea.
- |||Komunitatea.
- |||Zerbitzuak.
- |||Azpeitia.

Orain arteko guztia, bertan. Multzokatzeko berriarekin orain arteko atal kopurua mu-



Kimu bat
ASTE BUKAERAN IREKIA

Aholkularitza
Finantza
Laborala
kontabilak

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inbiliariora

Tlf: 943 157 123 Faxa: 943 157 225
Enperen kalea, 45 • Iuba,az@kubakom.com



KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62



lora-etxea...

Kimu bat
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tlfnoa.943 150085 www.kimubat.com

Jokin Uranga: "Neure buruaren kontrola ez galtzeak zuzeneko eragina izan zuen azken emaitzean"

uztarriacom | Aza. 10, 2011 | **kultura** | ARTIKULUA



Joan den igandean, hilak 6, Azpeitiko final-laurdenetako saioa irabazi zuen Urangak

Hori dela-eta, finalerdietan eta, bi urte barru Euskal Herriko Txapelketan izango da azpeitiarra

» Segi irakurtzen | Erantzunak: 1

Taxien prezioak 2012an KPI adina igotzea onartu dute Azpeitiko Udalean

Urola Kostako Hitza, uztarria.com | Aza. 10, 2011 | **udala** | ARTIKULUA

Diseinu aldeko azken ukituak falta direla, argazkiko oso antzeko itxura izango du Uztarria.com berrituaren azalak.

rrizteak ez du esan nahi, ordea, webgune berrituak edukietan galera izango duenik. Orain arteko eduki guztiak (albisteak, irudiak, liburuak, datuak...) hortxe mantenduko dira, kasu batzuetan kokapenez aldatuta bada ere. Horrela, Gida Komertziala, telefono guztiak, Eferemerideak, elkarrizketa digitalak edota farmazien eta eguraldiaren gaineko informazioa 'Zerbitzuak' atalean egongo dira. Eta herriko dokumentazio guztia, herri aldizkaria, liburuak eta hauteskunde-emaitzen historikoa, besteak beste, 'Azpeitia' atalean.

AKTUALITATEA ETA KOMUNITATEA.

Bi zutabe nagusi. Uztarria.com berrituan sartzen denak, bi zutabe nagusitan banatuta ikusiko du azala.

Aktualitatea: Ezkerreko partean, Aktualitateari dagokion albistegia. Orain arte bezala, eguneroko albisteak hor irakurri ahal izango dira, baina orain arte azalaren beste atal batzuetan bereiztuta agertzen zirenak ere bai, zutabe bakarrean, hala nola argazkiak –irudien ikusgarritasuna eta kalitatea hobe-

tuko da hala–, bideoak edota Di-Da izeneko atalean jasotzen zirenak.

Komunitatea: Uztarria.com berrituaren ekarpen esanguratsuenetakoa izango dena azalaren eskubi aldean kokatuko da. Uztarria beti saiatu izan da herritar eta eragileen parte-hartzea sustatzen, eta webgunea berritzearekin batera parte-hartze hori bultzatu eta indartzeko saiakera berri bat egin nahi izan du.

||||Internetek eta horko sare sozialek gero eta indar gehiago duten garai honetan, Uztarria.com-en Azpeitiko, azpeitiarren eta azpeitiarrentzako komunitatea sortzea da asmoa, nolabait esateko: Uztarriako kideena.

|||Orain arteko blogen kontzeptuari eta erabilgarritasunari beste buelta bat eman, eta Uztarriako kideen komunitatea eratuko da webgune berrituarekin. Herriko nornabakoek zein talde eta eragileek izango dute komunitate horretan izena eman eta beraien informazioa, iritziak, iruzkinak, argazkiak, bideoak, loturak... Uztarriarekin eta Uztarriako erabiltzaileekin partekatze modua.

||||Kideen ekarpen guztiak, diren motatakoak

direla, azalera eramango dira. Gainera, eta Uztarriaren kazetarien irizpide periodistikoaren arabera, ekarpen interesgarrienak Aktualitate atalean ere ikusi ahal izango dira.

||||Kideek, gainera, kanpoko blog edo albistegi bat lotzeko aukera izango dute, RSS bidez –beraien webguneak edo blogak, izanez gero–. Kasu horretan ere, ekarpen horiek, helbide originala errespetatuta, komunitateko ekarpen bezala tratatuko dira

||||Anonimotasunetik iritziak emateko aukera ere mantendu egingo da Uztarria.com-en. Erabiltzaile horiek, ordea, erantzunak bakarrik eman ahal izango dituzte, ez bestelako ekarpenik. Horiek ez dira Komunitatea atalean eta Uztarria.com-en azalean azalduko.

PIXKANAKA OSATUZ.

Mugikorrerako bertsioa... Osagai nagusiak berehala ikusgai izango badira ere, pixkanaka joango da osatzen Uztarria.com berritua. Helburua da egitura berri honekin haztea baimenduko dion plataforma osatzea, oraingo muga teknikoak gaindituz. Adibidez, mugikorrerako bertsioa sortzeko.*

Komunitatea



Josu Azpillaga
Aza. 10, 2011, 11:38 p.m.



Bideo bat

Lotura zuzena



Josu Azpillaga | Erantzuna
Aza. 10, 2011, 11:04 p.m.

Proba bat, erantzuna emanez

» Ta3. zineklubaren sailak, amaitzeko zorian



dida Artikulua
Aza. 8. 2011. 9:11 a.m.



euskara eta komunikazioa

Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Web orrien diseinu eta programazioa
- Iragarkiak

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

Mahaiaren bueltan

Gurutze. Gabonak ere pasatu ditun eta urte berria hasi zaigun asko konturatu gabe. Zahartzea ez omen dun ederra, baina ez zahartzea okerrago!

Alaitz. Arrazoa daukan. Gabonak aipatu ditunanez... Umea nindunala ez nionan inori entzuten gabonak ez zituela gogoko. Orain, berriz, besterik ez dinat entzuten! Batari tristeak egiten zaizkion, besteak gehiegi jaten duela esaten din... Ni gustura egoten naun ba gabonetan, aizan! Eta jan, jan bapo egiten dinat!

Gurutze. Egia esan, gaur egunean urte osoan nahikoa jaten dinagu, baina gabonetan gehiago. Uste dinat, "apetitua" ere handiago izaten dugula. Askotan jate aldera jan ere bai. Kilo batzuk hartu eta gero urte osoa izaten dinagu gainetik kentzeko, baina "nanai de la Txina!". Niri ez zidan astirik ematen kilo horiek gainetik kentzeko.

Alaitz. Zeharo okupatuta bizi haizenaren seinale. Euskaldunok, mahai inguruan jan edanean gaitun "zerbait". Egongo dun gabon gaua bakardadean eta porru salda hartuz ospatuko duenik ere berak halaxe erabakita, eta primeran iruditzen zaidan, baina ezin esan gero gehiegi jan duenik, edo sekulako barreak egin dituenik. Zer nahi dun ba esatea... Aspaldi galdu ninan gabonetako izpiritu erlijioso; ez zakinat sekula izan ote dudan. Baina ikaragarri gustatzen zaidan, gabon gauean, balkoira atera, kalera begiratu eta kale hutsa eta isila sumatzea. Aldiz, barrura begiratu, eta epelean senideak berriketan ikusita... Sentsazio ederra dun.

Gurutze. Azkenean, elizak jarritako data dun. Horregatik biltzen gaitun mahaiaren inguruan. Dena dela, biltzeko aukerarik ez due-

ALAITZ. "Gustura egoten naun ba gabonetan, aizan! Eta jan, jan bapo egiten dinat"

GURUTZE. "Niri ez zidan astirik ematen kilo horiek gainetik kentzeko"

nik ere bazagon. Gauza bat esango dinat: bakoitzak berea, Jaungoikoaren legea. Kar, kar... Esaerak halaxe esaten din!


Alaitz. Etxean falta direnak ekarri ditun gogora, eta norbait falta denean, dena dun desberdina. Aurtengoan ere faltako zitunan mordoxka bat arrazoi desberdinak medio. Etorriko ditun garai hobeak. Hi, eta legeak-lege, jarritakoak-jarrita, edozein aitzakia ona dun festan ibiltzeko. Eta datorren urtean hobeto, loteria tokatuko zaigun eta!

Gurutze. Azkenean horixe dun. Datorrena datorrela ere, ezin dugula lo hartu. "Egon hadi lo eta jango dun me!".

Alaitz. "Eta filosofia baino, oilo zopia hobe!".*



Danborrada, lehenera

Aurtengo helduen danborrada azken urteetakora itzuliko da; hau da, 22:15ean irtengo dira talde guztiak. Era berean, ibilbide motzagoa izango du, Damasoko buelta kenduta.  Ainitze Agirrezabala

Drum, drum, drum... hemen dira sansebastianak. 2012ko San Sebastian bezperako helduen danborrada duela bi urteko-ira itzuliko da; hau da, irteera ordua azken urteetako izango du aurten. Hala, 22:15ean irtengo dira talde guztiak Olazko Andre Mariaren plaza aurretik, kalean beherantz. Baina, nahiz eta 22:15ean irten, talde guztiak gauerdian plazan izateko ibilbidean aldaketak egingo dituzte.

Helduen danborradak ibilbide motzagoa izango du. Perez Arregi plaza eta Damaso Azkue auzoko zubitik egiten zuen buelta kendu egingo dute.

Iaz, helduen danborradan lau talde berri izan ziren: Loiolabide Zahar, Loiolatxo, Zulo Zabal eta Ollagorra. Beraz, 26 danbor eta upel talde, eta gastadoreak. Aur-

DATUAK

Zer. San Sebastian bezperako helduen danborrada. **Eguna.** Urtarrilak 19 (osteguna).

Ordua. 22:15 **Tokia.** Herriko kaleak.

Antolatzailea. Azpeitiko Udala eta elkarteak.

ten beste talde bat gehituko da danborradara: Oñatz, gastadoreen danbor taldea.

Beste aldaketa bat ere bada: San Sebastian egunean, bandera jaisteko helduen danborradak Sanjuandegitik irtengo du (22:45ean).

Aurretik, ordea, danborradako entseguen txanda izango da: urtarrilaren 16an, 17an eta 18an, Izarraitz pilotalekuan.✳

HELDUEN DANBORRADA

22:15

ean. San Sebastian bezperako helduen danborradak irteera ordua azken urteetako izango du.

27

danbor eta upel talde, eta gastadoreak. Talde bat gehituko da danborradara: Oñatz gastadoreen danbor taldea.✳



Danbor talde guztiak udaletxe aurreko plazan danborra jotzen, iaz.  Uztarria

BESTERIK

1 Aurrekontu parte-hartzaileak

2012rako udal aurrekontua herritarren parte-hartzearekin onartu nahi du Udalak.

Horretarako, parte hartze prozesua martxan jarri dute, jasotako ekarpenak aurtengo aurrekontuetan txertatzeko.

Hala, aurrekontuak onartzeko, herriko arlo, auzo, eragile eta bizilagunekin bilerak antolatu ditu Udalak. Abenduko ez gain, urtarrilaren 3tik 30era beste hamabost bilera egitea aurreikusita dute: hilaren

3an, Garmendi; 4an, Alde Zaharra; 10ean, Loiolabide; 11n, Lasao; 12an, Matxinbenta, Arana/Santutxo eta Kultura;

13an, Landeta eta Juan XXIII;

16an, Merkatariak eta Loiola;

17an, Emakumeak eta Nuarbe;

18an, Baserritarrak; 23an,

Festak; 24an, Gizarte Zerbitzuak (Immigrazioa); 25ean, Gizarte

Zerbitzuak (Behar sozialak);

26an, Kirola; 27an, Gazteak eta

Gizarte Zerbitzuak

(dependentzia, urritasun

fisikoak, hirugarren adina...);

30ean, Euskara.

Eguna. Urtarrilean zehar.

Antolatzailea. Udala.

2 Mendi irteerak

Urtearen lehen eguna mendian hasi zuten Lagun Onak Mendi Bazkunakoek, Erlon, hain zuzen ere. Hilaren 15ean,

gaztetxoentzako ibilaldia

antolatu dute, Endoiara eta

Ekainberrira; eta 28an, berriz,

Azpeiti-Aizarna-Azpeiti irteera

izango da.

 Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda




ONDO PASATU SANSEBASTIANAK

2012



||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	O	I	V	I	●	A	O	K	O	K	●
L	●	V	I	R	R	I	●	V	A	V	S
●	V	R	A	R	A	T	A	N	X	T	●
K	O	●	R	S	●	N	I	K	V	A	I
N	I	K	E	●	V	A	●	V	A	N	●
I	R	I	B	A	N	●	L	V	A	P	O
●	V	A	R	E	●	D	E	F	●	V	●
E	N	U	X	A	D	I	B	●			
A	R	E	A	R	T	A	M	A	G	A	
●	K	●	E	●	K	●	L	●			

HITZ GURUTZATUAK

K	V	N	U	T	S	V	K	V			
V	■	I	K	I	V	S	V	N			
O	K	A	R	A	H	■	K	I			
K	V	R	I	Z	■	O	S	U			
V	N	I	Z	■	V	A	R	A	M		
K	O	K	T	■	V	A	R	D	I	A	
S	T	■	E	B	R	V	A	R	U	N	
V	A	I	D	I	A	O	R	A	■	R	
K	V	L	A	N	A	K	U	L	A	N	A

||| ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urtarrilak 20 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZER DAGOEN SOBERAN, ZER DAGOEN FALTAN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?



AMAIA GARMENDIA



IRABAZLEA



Irene Umerez Beristain Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 134. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Irene Umerez saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutixiak



Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

Arrainen gibela

Arraina erostean gibela hondakinekin batera botatzen dugu, baina bere garrantzia du. A eta D bitaminaz oso aberatsa da gizakion elikadurarako. Onenak edo aberatsenak halibuta, atuna, sardina eta bakailaoarena dira. Marrazo batzuen gibela, ordea, ez da jangarria, A bitamina gehiegi dutelako.

A bitamina ezak 'gaueko itsutasuna' sindromea sor dezake; eta larria bada, itsutasun osoa. Bitamina horren ezak, bestalde, anorexia, azaleko lehortasuna, infekzioen aurkako defentsen urritasuna... Gehiegi janda toxikoa gerta daiteke, sabeleko minez eta pisua gutxituz; hala ere pronostikoa ona izan ohi da, sendatzeko nahikoa baita ez jatea.

D bitaminaren helburua kaltzioa absorbitzea eta gorputzeko toki egokietan kokatzea da. D bitamina ezak errakismoa sor dezake haurrengan; honek bere eragina du hezurretan eta eskeletoa osatzen; adineko pertsonengan, berriz, hezurak biguntzea ekarri dezake, kaltzio faltagatik.

Duela 25 urte gertatu zen kasu bitxi bat aipatuko dut. Arrantza talde batek bakailaoa erreta jan zuen. Antza, asko gustatu zitzaizen eta asko jan zuten. Bost ordura egoera toxiko larria gertatu zitzaizen, eguneroko elikadurak behar duen baino mila aldiz bitamina A gehiago hartu zutelako.*



Julian bereziartua

JOXEMARI PEREZ Izarraitz Txoko-ko zuzendaria



1. Artalde formal al duzu?

Bai, nahiko txintxo; nahiz eta despistaturen bat egon.

2. Etxean entseatu beharrik izaten duzu?

Kotxean CDa entzuten dut.

3. Inork erakutsi zizun zuzentzen?

Bai, Barratsuko zuzendari Juanjo Arakistainek.

4. Zer pieza gustatzen zaizu gehiena?

Soreasuko Sebastian.

5. Zuzentzen zailena?

Txokolo, bere zailtasuna du.

6. Unerik bereziena?

Gauerdian talde guztiak

plazan elkartzen garenekoa. Oso hunkigarria da.

7. Boluntario aurkeztu zinen zuzendari?

Inork zuzendari izan nahi ez eta animatu egin nintzen. Danborra jotzen hobeto pasatzen da, ordea.*

Ainitze Agirrezabala

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoñ nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

PEUGEOT
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

arte eta dizainu ikastegia
di
Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00
Pintura 17:30/19:00
Talla 19:30/21:00
Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO
MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

lentzeria
mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

|||BLOGAK|||||||

Soreasun aretoa bai, eta filmak?

Ta 3. Zine Klubak aurtengo ikasturtea ohi bezala, urrian has-teko asmo eta intentzio guztia zuen, baina arazo ekonomiko eta legalen ondorioz, atzeratu egin behar izan du. Gaur egungo zine eta banaketa munduak betebeharrak ezartzen ditu, eta horregatik, azken orduan, dena prest genuela, hasiera atzeratu eta aldaketak egin beharrean aurkitu gara.

Hilabeteok, egoeraren inguruko hausnarketa egin eta helburuak finkatzeko erabili ditu taldeak, eta Udalarekin hitz egin ondoren, saiakera berri bati ekingo diogu. Gogoz eta indartsu.

Azpeitiko zine klubak 30 urtetik gorako historia du, eta bide horri jarraitu nahi diogu. Gure taldearen helburua zirkuitu komertzialetik kanpo-kalitatezko pelikulak eskaintzea izan da. Beti ere gai sozialak

|||Egoera konplikatu arren, zine klubak apustu berri bat egin nahi du

|||INKESTA||||

Non ospatzen Gabonak?

Ez ditut ospatzen. %15,31

Etxean. %28,23

Gurasoen jaioterrian. %6,7.

Oporretara joaten naiz. %49,76.

|||Oraingo galdera. Zer iruditzen helduen danborradak ohiko ibilbidea berreskuratzea?

lantzen dituzten filmei lehentasuna emanez. Horrekin, herriko kultur eskaintza oraindik eta anitzagoa izateko egiten dugu lan.

Egoera konplikatu arren, zine klubak apustu berri bat egin nahi du. Eta horretara gatoz. Urtarriletik martxora bitartean 5 film eskainiko ditugu. Oraingoan, Soreasun. Azpiegitura aldaketak, hemendik aurrera sarrera kobratzera eramango gaitu: 3 euro. Zinea, ostegunetan izango da, 21:30ean, eta film guztiak bertsio originalean botako dira. Aprobetxatu zine klubaren eskaintza hau, martxotik aurrera, zine klubik izango den ere ez dakigu eta.

Urtarrileko filmak:

Hilaren 12an: *El hombre de al lado*

Hilaren 26ean: *Another year**

|||||||Ta 3 Zine Klubak||||

|||EFEMERIDEAK|||||||

1643

Tabernak gutxitu nahi.

Herrian tabernak gutxitzea egokia iruditu zitzaizkien agintariei, eta neurria hartzeko herritar guztiak otsailaren 2an, goizeko zortzietako bilerara deitu zituzten. Bilerara agertzen ez zenarentzat 300 mairako isuna jarri zuten.

1730

Mugarrien lekuan

gaztainondoak. Gallai baserrian zem maizterrari eskatu zioten behar zen urruntasunarekin Azpeitiak eta Zestoak zituzten mugarri bakoitzaren ondoan gaztainondo bat landatzeko. Gaztainondoak haztean mugarriak aurkitzeko lagungarri bihurtu ziren.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur

Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita





Lapiko askotan

Zapatilak, bertsoak, ardoa...
Osagai horiek ez dira falta
Estitxu Elduaienen
bizimoduan. 📝📷 A. Agirrezabala

P

robotu gabe ezin ba jakin, zerbait gustatuko al zaigun ala ez. Bateko eta besteko, gauza askotan parte hartzen duen horrekin, lapiko askotako burruntzalia dela esan daiteke Estitxu Elduaien (Azpeitia, 1977). Hitza du langai, eta hain zuzen, kazetari lanagatik da ezaguna. *Berria* egunkarian betetako ibilbideari esker nagusiki, baina ETBn *Kalaka* saioan eta Euskadi Irratian *Faktoria*-n ere ikusi eta entzun ahal izan dugu, kolaboratzaile. Azken urte eta erdian *Hitza* egunkarietako koordinatzailea izan da, eta

urte berriarekin batera komunikazio teknikari lanari heldu dio, Eregi enpresan.

“Momentuan momentukoa disfrutatzen jakitea” du bizitzako lema Elduaienek. “Lurrikaririk bada, etxean behintzat ez gaitu harrapatuko!”.

Korrikarako afizioa

Sekula ez da kirola egin zalea izan, baina azkenaldian hainbat maratoi korritu ditu. “Familiar, genetikoki, kolesterola izateko joera dugu eta aurrenekoz 22 urterekin agertu zi-

tzaidan analisisetan. Medikuak aholkatuta aerobikeren eta igeriketan hasi nintzen. Gainontzean, kirola egiteko orduan traketsa izan naiz. Ikastolan, gimnasian irakasleak Loiolako buelta egitea agindu eta ez nuen egiten”.

Azpeitian aurrenekoz antolatu zuten Elkartasun Eguneko krossean, 2001ean, egin zuen debuta, eta harrezkero ez dio korrika egiteari utzi. “Elkartasun krosean jende gutxi eman zuela izena eta ahizpak animatu ninduen korrikan irtetera. Egin nituen hiru km eta ezin. Erretiratu eta Garmendi inguruko

||| MOTZEAN |||||

OROITZAPEN BAT?

Egunkaria itxi eta hurrengo egunetan han sortu zen mugimendua eta indarra.

GALTZEKO TXOKO BAT?

Elosuko baserriko pagadia.

ZERK POZTEN DIZU EGUNA?

Norbaiten umorezko keinu batek.

ETA, ZERK GARRAZTEN?

Errespetu ezak eta jendea gaizki esaka entzuteak, giro txarra sortuz.

KAZETARI BAT?

Imanol Murua.

KAZETARIA EZ BAZINA?

Idazlea edo irakaslea.

banku batean geratu nintzen eserita. Orduan, ibilbidea bi aldiz pasatzen zen leku beretik eta bigarrenengo bueltan berriz sartu eta bukatu egin nuen. Garai hartan, Garikoitz Etxeberria *Kafe* preso zegoen, eta karta bat idatzi nion esanaz intenzioa banuela, baina tranpa eginda bukatu nuela eta ez nekiela zenbaterainoko elkartasuna erakutsi nion”.

Urte hartan bertan, irailean, Zestoako Amabirjinetan –Zestoan bizi da, azken sei urteetan–, parrandan zela, lagun batek Behobia egiteko erronka botu zion. Halakorik egitea “sinesgaitza” iruditzen zitziola dio, baina entrenatu eta geroztik, Behobia-Donostia lasterketa eta Lisboako eta Madrilgo maratoiak egin ditu. “Maratoiak bukatzean mugikorrean hamar dei galdu izaten ditut, dena ondo joan den jakin nahi izaten dute-eta”.

Irakurtzea eta zinea atsegin

Esku artean beti du libururen bat. “Nire lana medio, egunero hainbat egunkari irakurtzen ditut, eta hainbeste erreallitate jasota fikzioa irakurtzen saiatzen naiz, deskonektatzeko. Lehen dena euskaraz irakurtzen nuen, baina Iruñeara kazetaritza ikastera joan nintzen, erderaz, eta zailtasunak nituen euskarazko eta gaztelaniazko nobelak txandaka leitzeko ohitura hartu nuen. Gauean irakurtzen dut eta, une honetan, Arantxa Urretabizkairen *Hiru Mariak* eleberriarekin ari naiz”.

Film asko etxean ikusten baditu ere, zinera joatea ere atsegin du: “Lehen, Donostiara jo-



1. Senpereko Larrealdean, Onintza Enbeita eta Aitor Renteriarekin, urtero egin ohi duten bertso saio-afarian.
2. Karnabaletan, geisha jantziarekin.
3. Madrilgo maratoian helmugara sartzen, lazko martxoan.

Bertsoa, afizio

||| Sueltoan ez ezik, hitz neurtuan ere ez du herdoilik. Ordu txikitik, alkoholak ematen duen erraztasuna lagun, egoki josten ditu bertsoak. “*Berria*-ko bazkari edo afarietan ordu batetik aurrera lankide batzuk beti bertsoetan hasten gara. Noski, bertsolari onak edan beharrik ez du izaten baina... Laneko bazkari haietako batean berotu eta *Berria*-ko bertso eskola antolatu genuen. Erredakzioko lankide Iñaki Petxarroman genuen irakaslea, eta ostegunero, goizeko 10:00etan, biltzen ginen”.

Laneko bazkariak igandean egin ohi dituzte, baina hurrengo egunean lanera joan beharrik “giroa asko moztzen” duenez, urtean behin Iparraldeko bertso elkarteak Senperen duen Larraldea etxean elkartzeko hasi ziren: “Zapatu gauean afaldu eta suaren bueltan bertso-saioak egiten genituen. Gau osoa aritzen ginen kantuan, goizalderarte. Gero, lozakuan sartu eta lo”.

Lehengusu baten ezkontzan ere ausartu zen bertsoetan egitera, eta harrezkero, Urrestillako osabaren ahotik ‘hau da gure familiako bertsolaria’ entzun behar izaten du. “Konfiantzako giroan gustura aritzen naiz kantuan. Berriatik eszedentzia hartuta egon nintzenean ere Erriarraitzen hastekotan egon nintzen”. Atera kontuak.

aten ginen asko baina, azkenean!, Soreasu ireki dutenetik igandero etortzen gara”.

Elosu eta Errioxa

Parranda eta jan-edan zalea da Elduaien: “Hori esan beharrik ez dago. Zirkulazio txarrekoa naiz, eta egunean ardo kopa bat ona nuela esan zidaten. Kriantza beltz bat kopan, onena. Ostiral arratsaldetan koadrilakoekin egiten dut txikiteoa Urrestillan, eta igandean Zestoan. Entenditu ez dut entenditzen batere, baina ardoa dastatzen ikasteko saio horiek inbidia ematen didate, eta ea Azpeitian halakorik jartzen duten”. Errioxara joateko ere ohitura handia dutela gaineratu du: “Castañaresera joaten gara oporretara, umetatik. Frontoitik ere –bikotekidea artekaria du- sanmateotan beti joaten gara Errioxako bodegaren batera, eta han badago kultura hori: ‘hau hobea da, hau probatu ezazu...’. Nik ona eta txarra bereitzen ditut; ondo sartzen zait edo ez”.

Errioxara ez ezik, Elosuko aitaren jaiotetxera, Añei baserrira, joateko astia ere ateratzen du. “Tarteka asteburua pasatzera joatea gustatzen zait, deskonektatzeko. Unibertsitateko lagunak urtean bitan elkartzeko gara: ne-guoro Elosuko baserrian, eta beste behin, txandaka, baten edo bestearen bitzikian: Suitzan, Bartzelonan, Madrilan, Asturiasen...”. Honek bai jakin!✳

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaileak)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (URTARRILA)

EGUNEZ

1-3-7-8-16-17-18-19-20-21-22-26	2-5-12-25	4-10-13-23-28-29
Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 080258	943 815974

GAUEZ

1	9-10-11-12-13-14-15-30	16-17-18-19-20-21-22
Alberdi (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 815974	943 080258	943 811350

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 25ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 09:00-13:30 || Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 10:00-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ORDUTEGI ZABALAGOA.

Loiolako liburutegia azterketa garaian asteburuetan zabaldu egingo dute ikasleentzat. Urtarrilaren lehen bi asteburutan zabalduko dute: 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:00etara.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarrria.com/azpeitia/
autobusak

2-7-8-27	3-4-23-28-29	5-24-25	6-26
Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 850660	943 852989	943 851235	943 851966

MONICA PAJUELO

Torrelles de Llobregat, Bartzelona

“suhiltzaile oposaketak ari naun prestatzen”

Bartzelonara ikastera joateko asmoa zuen, baina, azkenean, maiteminak eraman zuen Kataluniara. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

Nolaz bizi haiz Bartzelonan?

Duela hamaika urte eta erdi etorri nindunan. Hasieran diseinu grafikoak ikastera etortzeko asmoa ninan. Donostian diseinu grafikoak ikasten ari nindunan eta asteburuan taberna batean egiten ninan lana. Han ezagutu ninan egun nire gizona dena. Azkenean, maiteminduta etorri nindunan Bartzelonara, ikastera.

Nolakoa dun bizi haizen herria?

Bartzelonatik oso gertu zagon, 20 minutura. Oso herri lasaia dun, mendian zagon eta 6.000 biztanle inguru gaitun. Urbanizazio batean bizi gaitun, hori dun ohikoa hemen.

Erraz integratu al hintzanan horra?

Hemengo bizimodura moldatzea ez hunan erraza izan: estres handia, jendetza, beti korrika joan behar leku guztietara, kotxe asko... Baina orain fenomeno bizi naun! Hemen bizitzeko pixkat zoraturata egon behar dun!

Azpeititik zer botatzen dun faltan?

Gauza asko: familia, festak, pintxoak, lasaitasuna (batzutan)...

Ikasten ere ari haiz, ezta?

Bai. Suhiltzaile oposaketak prestatzen ari naun. Oso gogorak ditun, batik bat proba fi-

sikoak. Baina, hemen neskok errazago dinagu suhiltzaile izateko. Aitaren pausoak segitu behar ditinat; aita suhiltzailea dun-eta. Egutero hiru orduz entrenatzen dinat. Kamioko karneta ere atera beharra dinat, derrigorrezkoa dun. Lasterketetan ere parte hartzen dinat; normalean 10 km-ko lasterketetan parte hartzen dinat.

Sarri etortzen al haiz Azpeitira?

Bai, ezin naun bizi horra joan gabe. Pilak kargatu eta indarberritzera joaten naun.

Zer gustatzen zain Bartzelonatik gehiena? Eta, gutxiena?

Bartzelonak eskaintzen duen aukera zabala gustatzen zaidan gehiena. Denetik zagon, edozein eskaintza: kulturala, gastronomikoa... Edozein ordutan dendak irekita zeuden. Eta gutxiena trafikoa! Zoramena dun.

Zer moduzko jendea dun horkoa?

Nahiko itxia dun hasieran. Euskaldunekin asko konparatzen ditinat. Antzeko gauza asko ditinagu: hizkuntza, kultura... Behin harremanak hasitakoan, jende oso jatorra dun, benetan. Benetako lagunak egin ditinat hemen.*




1

1. Monica Pajuelo alaba Iraiarekin. 2. Torrelles de Llobregat herria. 3. Pajuelo, Villadecaneko lasterketan parte hartzen.



2



3

postalak habanatik: ama

O

hi baino urrutiago zaude, zeuk jakingo duzu zergatik, baina es-telari esan zeniola entzun nizun, mukizua nai-zela, ez dudala ezertarako balio, eskatzeko ez bada, ez daukadala zure kezkarik, lotsaga-bea naizela, txoriburua, ez dudala estimatzen zuk nire alde egin duzun guztia, eta ahal dakit nik zenbat akats.

utxidazu esaten hemen inor ez dela perfek-tua, baliteke nik akats horiek, eta beste batzuk, izatea, baina zuk ere badituzu eta hala eta guztiz ere MAITE ZAITUT. nik hori ez adieraztea ez da nire kulpa, behin ere ez gara elkarrekin egon maitasuna adierazteko behar beste denbora, izan dugun denbora apurra harrigarria ere bada, horregatik ez naiz neka-tzen zurekin denbora pasatzen, pentsatzen jarrita ez dakit zein diren zure gustuak, interes-ak, kezka (zuk pentsatuko duzu badakidala hori dena, baina ama, zure kezka bakar-ra dirua da, ez dizut besterik ezagutzen), horre-gatik ez dakit zer egin zurekin zu nire ondoan zaudenean. akzio filmak ikusi: hori da buila, burukomina egiten dit. drama: ai, ez, kendu hori, eta ez dut segituko, askoz gehiagorik ez naiz saiatu eta.

ama, zuk niri hainbat akats ateratzen badiz-kidazu ere, sinistu ni ez naizela kulpante ba-karra, zuk, nire ondoan egon ez bazara ere, kulpa handia daukazu.

ez dut ezertarako balio: a zer pena, ama, beharbada ez daukat neskame konplexua, ez dut eguna etxe garbiketan pasatzen, baina horrek ez du esan nahi ezertarako balio ez dudarik, ikastea gustatzen zait, laguntzeko modua daukadanean, laguntzen dut, ez nauzu kalean zurrutean ikusten, edo hau eta hura egiten, behin ere ez nauzu gizon baten etxetik atera behar izan, edo taberna-zulotik, edo batek daki nondik, askoz leku okerrago-ren batetik.

ez dut ezertarako balio, eskatzeko ez bada: barkatu, baina ez nago ados, nire gastuak ikasketak dira, eta mila urtetik behin gaixo-



|||||||miel a. elustondo||||

|||Baliteke nik akats horiek, eta beste batzuk, izatea, baina zuk ere badituzu eta hala ere MAITE ZAITUT

tzen banaiz (zuk beste kalkulurik egiten ez baduzu, behintzat), edo, esan egia, zenbat aldiz eskatu dizut dirua aurten arropa eroste-ko, edo sakelako berria (nirea galdu egin zen eta), oinetakoak, ez ohiko zer edo zer nahi izan dudan esadazu, uste dut oooooooooo gutxitan izan dela, bat ere ez, bestela esada-zu zertan gelditu zen urtebetetzeko errega-lua, gida-baimen hura, pentsamendu hutsa izan zen azkenean, zeuk asmatu zenuen ideia, ez nik, ezta eskatu ere baimena atera-tzeak balio zuen dirua, milioi bat peso, hama-bost urte bete nituen garaiko motorraren dirua ere batek daki non dagoen, ez nuelako motorrik nahi eta ez dudalako diru hori erabi-li, non den ere ez dakit, eta dagoen tokian da-goela ere ondo dago, eta segi horrela, eta

pentsatzen jarri eta

esadazu, be-

netan,

bankua

ematen

dudan, beti

diru eskean. esan,

ama, esan...✳



landeta

brikodenda

eurotex



**PINTURAK - BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA
GILTZEN KOPIAK - PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK**



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia
Tel.: 943 81 25 66 • Mug. 607 58 89 13
www.landetabrikodenda.com




jarraitu gaitzazu facebook-en

Ez al zaizu iruditzen txoko hau egokia dela zure enpresaren publizitatea jartzeko?

2.500 aleko tirada eta 8.000 irakurle hilero

399 euro



Santi Lazkano Kirolak



neguko merkealdia

%30



José Artetxe 1, Azpeitia 20730
Tel/Fax: 943 81 16 50